



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.12.10

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko abenduaren hamarrean, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Bertaratutako zinegotziak: Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar	<ol style="list-style-type: none">1. Aurreko akta onartzea.2. 2018ko lan eskaintza publikoa onartzea.
Idazkaria: Begoña Garmendia Vazquez	<ol style="list-style-type: none">3. Programako bitarteko funtzionarioaren izendapena luzatzeko akordioa berrestea.
Kontuhartzailea : Ainhoa Molinos Zubiaurre	<ol style="list-style-type: none">4. Onartzea Tolosako lurramendi pasealekuan dauden bi haur parkeen mantenua egiteko material horniduraren kontratazio jardunbidea eta lizitazioari hasiera ematea.5. Haurren hiria zerbitzuaren kontratazio jardunbidea eta lizitazioari hasiera ematea.6. 67/2018 eta 68/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko abenduaren 3an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. 2018KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONARTZEA.

I.- Tolosako Udalbatza Plenoak, 2018ko urriaren 30ean egindako bilkuran, besteak beste, *Giza Baliabideak arrazionalizatzeko 2018-2020 bitarteko Programa/Enplegu Planaren 1. Fasea* hasieraz onartu zuen. Ebazpen hauek argitaratu ziren udaletxeko web orriko



Iragarki Taulan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (214 zk.an, 2018ko azaroaren 7an). Halaber, Enplegu Planaren Memoria, Lanpostuen Zerrenda eta Lan Eskaintza Publikoen eta Hautaketa Jardunbideen egutegien proposamenak udal sarean jarri ziren, langile guztien eskura, 2018ko azaroaren 8tik aurrera. Horretaz gain, Lanpostuen Zerrendako hainbat lanpostuen ordainsarrietan akats numerikoak zeudela ikusita, zuzenketak egin ziren informazio publikoko epearen barruan, beti ere alegazioak aurkezteko epea amaitu aurretik.

Informazio publikoko epean alegazioak aurkeztu ondoren, 2018ko abenduaren 10ean egindako udalbatza plenoak aztertu eta ebatzi zituen. Halaber, dokumentuak behin betiko onespena jaso zuen.

II.- Bilkura berdinean, Udalbatza Plenoak, udaleko 2018ko ekitaldiari dagokion Lanpostuen Zerrenda onartu zuen, behin betiko onespena jaso zuelarik

III.- 2018ko lan eskaintza publikoan sartzea proposatu diren plazak eta lanpostuak:

III.1.- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 1. Fasearen helburu nagusiak ondoko hauek dira:

1. Aldi baterako lanpostuak eta funtzioak egonkortzeko 2017ko eta 2018ko Estatuko Aurrekontuak arautzen dituzten Legeek ematen dituen aukerez baliatzea, udaleko plantilla egonkortzeko eta prekarietate-maila gutxitzeko, aurreikusten diren hautaketa-jardunbideetan Tolosako udaleko udal lanpostuetan izandako esperientzia bereziki kontuan hartuz.
2. Premia duten lanpostuak sortzea, honako arrazoi hauetan oinarrituta:
 - 2.1. Legeak xedaturiko funtzioak eta zereginak betetzea: Diruzaina, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Delegatua, Kontratazio arloko Teknikaria.
 - 2.2. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuan epe laburrean aurreikusten diren aldaketa eta gabeziei aurre egitea, beti ere Legeak xedatzen dituen mugak errespetatuz.
 - 2.3. Udalaren eskumenekoak diren eta ezinbestekoak diren zerbitzuak ematea: Gizarte Zerbitzuak, Udal Ondarearen Kudeaketa, UDATE, Sustapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Feriak, etab.
3. Hasiera batean amortiza edota alda daitezkeen lanpostuak identifikatzea.
4. Tolosako udaleko sektore publikoa berrantolatzea: hainbat sozietate instrumentalen disoluzioa bideratzea; sozietate haietan burutzen diren eta funtzio publikoko izaera duten eginkizunak administrazio publikoak bereganatzea; langileak hautatzeko garaian publizitatea, meritua, gaitasuna eta berdintasunean oinarritutako prozesuak baliozkotzea, eta, azken finean, Tolosako udalaren sektore



TOLOSAKO
UDALA

publikoa arrazionalizazio eta eraginkortasunean oinarritzea, funtzio publikoak bermatuz. Halaber, amortiza daitezkeen lanpostuak amortizatzea, udalaren beharretara egokitzeko. Era honetan, plangintza honek Erretengibel S.A., eta Tolosa Lantzen S.A. eragingo ditu.

5. Plantillaren malgutasuna eta mugikortasunerako tresnak sortzea, giza baliabideen optimizazioa eta zereginekiko egokitasuna bermatzeko, beti ere langileen eskubideak kontuan hartuta: plazen definizio orokorrakoak, barne-sustapeneko jardunbideak, lanpostuen birbanaketa eta langileen berrizendapenak, etab. Horretaz gain, sortzen diren singularizatu gabeko plaza berriak ahalik eta era zabalenean definituko dira
6. Udaleko gainontzeko Departamentuetan izan daitezkeen gabeziak eta hutsuneak detektatzea, hasiera batean, Bigarren fasean garatu behar den prozesuaren kalterik gabe.
7. Tolosako udaleko Lanpostuen Zerrenda egokitzea.

Programazio honen barruan, 2018ko Lan Eskaintza Publikoa zehazteko garaian, Estatuko Aurrekontuak arautzen dituen 6/2018ko Legeak jarritako mugak kontuan hartu behar dira, hain zuzen aurrekontu mailako muga eta birjarpen tasari dagokiona.

III.2.- Egoera honen aurrean, ondoko lanpostu eta plaza hauek hornitzea proposatzen da:

III.2.1.- LANPOSTUAK BETETZEA BARNE LEHIAKETA MUGATUAREN BITARTEZ: Errolda eta Estatistikako administraria, UDATEko administrariak (2), eta Errentako administraria.

III.2.2.- PLAZAK HORNITZEA ENPLEGUA EGONKORTZEKO JARDUNBIDEAN (2018ko Estatuko Aurrekontuen Legearen 19.9 artikulua): Lau administrari: Merkataritza, Azokak eta Turismoa, Kontabilitatea, Kultura eta UDATEko informazioko eta tramitazioko agentea.

III.2.3.- PLAZAK HORNITZEA OPOSIZIO-LEHIAKETA LIBREAN: Gizarte Langilea eta Euskara eta Hizkuntza Departamentuko Burua.

III.2.4.- FUNTZIONARIZATZE-JARDUNBIDEA: Arkitektoa eta Administraria (Hirigintza)

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 10. artikuluan, bitarteko funtzionarioen araubidea xedatzen du, honako era honetan:

1. Son funcionarios interinos los que, por razones expresamente justificadas de necesidad y urgencia, son nombrados como tales para el desempeño de funciones



TOLOSAKO
UDALA

propias de funcionarios de carrera, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:

a) La existencia de plazas vacantes cuando no sea posible su cobertura por funcionarios de carrera.

b) La sustitución transitoria de los titulares.

c) La ejecución de programas de carácter temporal, que no podrán tener una duración superior a tres años, ampliable hasta doce meses más por las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto.

d) El exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses.

2. La selección de funcionarios interinos habrá de realizarse mediante procedimientos ágiles que respetarán en todo caso los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.

3. El cese de los funcionarios interinos se producirá, además de por las causas previstas en el artículo 63, cuando finalice la causa que dio lugar a su nombramiento.

4. En el supuesto previsto en la letra a) del apartado 1 de este artículo, las plazas vacantes desempeñadas por funcionarios interinos deberán incluirse en la oferta de empleo correspondiente al ejercicio en que se produce su nombramiento y, si no fuera posible, en la siguiente, salvo que se decida su amortización.

5. A los funcionarios interinos les será aplicable, en cuanto sea adecuado a la naturaleza de su condición, el régimen general de los funcionarios de carrera.

6. El personal interino cuya designación sea consecuencia de la ejecución de programas de carácter temporal o del exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses, podrá prestar los servicios que se le encomienden en la unidad administrativa en la que se produzca su nombramiento o en otras unidades administrativas en las que desempeñe funciones análogas, siempre que, respectivamente, dichas unidades participen en el ámbito de aplicación del citado programa de carácter temporal, con el límite de duración señalado en este artículo, o estén afectadas por la mencionada acumulación de tareas.”

Beraz, aipatu Legearen 10.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioen bidez hornitzen diren lanpostuak, Lan Eskaintza Publikoan sartu behar dira, bitarteko funtzionarioa izendatzen den urtean edo hurrengoan, eta era finkoan hornitzen dira edota amortizatu egin behar direla.

II.- Toki erakundeek kasuan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 91. artikuluan ondokoa xedatzen du:

- Tokiko korporazioek urtero osatuko dutela euren lan eskaintza, estatuko oinarritzko



araudian ezarritako irizpideak kontutan hartuz.

- Pertsonal guztiaren hautaketa, izan funtzionarioak edota lan-itunpekoak, lan eskaintza publikoaren arabera egingo direla, deialdi publikoaren bidez eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak bermatuko diren sistemen bidez - lehiaketa, oposizio edota oposizio-lehiaketa irekia -.

Zentzu berean, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekreturen 128. artikuluan xedaturikoaren arabera, Toki-Korporazioek urtero ekitaldiari dagokion Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratu behar dute, aurrekontua onartu eta hilabeteko epe barruan, funtzio publikoak ezarritako legediarekin bat etorritik.

Artikulu horren 2. atalak behin betiko pertsonala izendatzeko ondoko betebeharra ezartzen du: *“2. No podrá nombrarse personal interino para plazas que no se hayan incluido en la oferta de empleo público, salvo cuando se trate de vacantes realmente producidas con posterioridad a su aprobación.*

El personal que ostentare la condición de interino cesará automáticamente al tomar posesión como funcionarios de carrera los aspirantes aprobados en la respectiva convocatoria. Sólo podrá procederse al nombramiento del nuevo personal interino para las plazas que continúen vacantes una vez concluidos los correspondientes procesos selectivos.”

III.- Funtzio publikoko legedian, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 70. artikulua lan eskaintza publikoari dagokionean ondokoa xedatzen du:

“1. Las necesidades de recursos humanos, con asignación presupuestaria, que deban proveerse mediante la incorporación de personal de nuevo ingreso serán objeto de la Oferta de empleo público, o a través de otro instrumento similar de gestión de la provisión de las necesidades de personal, lo que comportará la obligación de convocar los correspondientes procesos selectivos para las plazas comprometidas y hasta un diez por cien adicional, fijando el plazo máximo para la convocatoria de los mismos. En todo caso, la ejecución de la oferta de empleo público o instrumento similar deberá desarrollarse dentro del plazo improrrogable de tres años.

2. La Oferta de empleo público o instrumento similar, que se aprobará anualmente por los órganos de Gobierno de las Administraciones Públicas, deberá ser publicada en el Diario Oficial correspondiente.

3. La Oferta de empleo público o instrumento similar podrá contener medidas derivadas de la planificación de recursos humanos.”



TOLOSAKO
UDALA

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatu publikoei aplikagarri zaien Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikulua, lan eskaintza publikoen inguruan ondokoa xedatzen du:

1. Las necesidades de recursos humanos con asignación presupuestaria que no puedan ser cubiertas con los efectivos de personal existentes en cada Administración Pública serán objeto de oferta de empleo público.

2. La oferta de empleo público expresará las plazas vacantes que deban cubrirse, tanto de funcionarios como de personal laboral fijo, clasificadas por categorías laborales o por grupos, cuerpos y escalas de funcionarios. La inclusión de dichas plazas no precisará de la realización de concurso previo, respecto de los correspondientes puestos de trabajo, entre quienes ya tuvieren la condición de funcionarios.

3. No podrán convocarse pruebas selectivas para la provisión de plazas cuya cobertura no se halle comprometida en la oferta de empleo público.”

Lege horren 24. artikulua, lan eskaintza publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko betebeharra xedatzen du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eskaintzen laburpena ere.

IV.- 2018 ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen 6/2018 Legearen 20. artikulua Lan eskaintza publikoen inguruan ondokoa xedatzen du:

19. art. - Lan Eskaintza Publikoa edo antzeko beste tresnaren bat pertsonal-beharren hornikuntza kudeatzeko.

Legeak zehaztutako sektore publikoan pertsonal berria txertatzeko, gero adierazten diren ataletan xedatutako mugak eta baldintzak bete behar dira. [Honako hauek salbuetsita daude: merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-entitate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta nagusiki Sektore Publikoa osatzen duten Administrazioek eta Organismoek parte hartutako partzuergoak, horiek denak, hurrenez hurren, Lege honen eta Estatuko Organo Konstituzionalen hogeita zazpigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoari jarraituko baitiote]:

- Salbuespena: aurreko EPE batzuei dagozkien hautapen-prozesuetatik datorren pertsonala txertatzea.
- 1. muga: Gastuen aurrekontuaren 1. kapitulua. (*homogeneotasun-egoeren haustura-kasuetan izan ezik, Programa honetan argudiatzen den bezala*).

Administrazio Publikoetan pertsonala txertatzeari buruzko xedapenak:

a) Aurreko ekitaldietan aurrekontu-egonkortasunari eta zor-publikoari eta gastu arauari buruzko helburuak bete dituzten Administrazio Publikoak (*Tolosako Udala*):

1. Birjarpen-tasa, ehuneko 100.



2. Tasa gehigarria, % 8, giza baliabideen errefortzua behar duten sektoreetan, betiere aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunaren esparruaren barruan. *Portzentaje gehigarri hau lehentasunez erabiliko da jarraian azaltzen diren egoeraren bat gertatzen denean:* zerbitzu publiko berriak ezartzea, urte-sasoaren arabera jarduera jarduera turistikoaren eraginez handitzea edo espero diren erretiro-kopurua altua izatea.
 3. Aipatutako portzentajea % 10 izango da toki erakundeentzat, baldin eta, aurreko baldintzaz gain, zor-finantzarioa 2017ko abenduaren 31n amortizatua badaukate.
 4. Bere birjarpen-tasa edozein sektore edo kolektibotan, berdin dio zeinetan, metatzeko aukera.
- b) Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetarako, Autonomietako Polizia Kidegoetarako eta Udaltzaingoetarako, birjarpen-tasa izango da ehuneko 115.
- c) Birjarpen-tasa gehigarria, % 5, udalerriguztiek, baldin eta, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 26.1 artikulua aplikatuta, 2013tik 2017rako denboraldiko ekitaldiren batean zerbitzu publiko gehiago emateko legezko betebeharra izan badute, urte horietako urtarilaren 1ean eguneratutako udal-eroldaren arabera zuzenbidezko biztanleria hazteagatik. Tolosako udalak ez luke beteko baldintza hau, aipatu Legearen 26.1 xedaturiko biztanleen kopuru-muga ez duelako bete (20.000 biztanle)
- d) Giza baliabideen birjarpen-tasaren kalkulua: aurreko urteetan bezala. Espediente honen kasuan, kontuan hartu beharko dira 2017an eta 2018an emandako jubilazioak, halaber 2019an aurreikusten direnak, Lan Eskaintza Publikoak onartzeko garaian.
- e) Giza baliabideen birjarpen-tasatik eratortzen den gehienezko plaza-kopuruaren barruan ez dira aintzat hartuko barne-sustapeneko prozeduren bidez hornitzeko ateratzen diren plazak, ez eta epai judizial bidez mugagabe ez-finkotzat jotako pertsonalari dagozkionak ere.
- f) **ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO TASA GEHIGARRIA**, 2017ko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean (ALO) dagoenaz gain:
1. Barne hartuko ditu izaera estrukturaleko plazak.
 2. Aurrekontu-zuzkidura dutenak.
 3. Aldi baterako lotura duen langileek betetzen dituztenak. Posible al da posturik ez duten plazak aintzat hartzea? BAI, AURRETIK LANPOSTU-ZERRENDA (LPZ) GASTUA HANDITU GABE ALDATUZ GERO. BIRKALIFIKATU DIREN PLAZAK ERE SAR DAITEZKE, betiere eginkizunak aldatzen ez badira. Auzitegi Gorenak 2016ko azaroaren 29an emandako bi epai: 1003/2016 eta



TOLOSAKO
UDALA

1022/2016. Tolosako udalaren kasuan, 2018ko Lan Eskaintza Publikoak eragiten dituen lanpostu guztiak sailkaturik daude Lanpostuen Zerrendan.

4. Gutxienez 2014ko abenduaren 31 ezkerro, aldi baterako eta etenik gabe beteta egon direnak.
5. Honako sektore eta kolektibo hauetan: administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako langileak, ikerkuntza-arlokoak, osasun publiko eta ikuskatzailea medikokoak, bai eta beste zerbitzu publiko batzuk ere. Guztiak, Toki Administrazioan, 2018ko Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen Legearen xedapenak kontuan hartuz.
6. Tasa gehigarri honi dagozkion Enplegu Publikoko Eskaintzak: onartu eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratu behar dira, 2018-2019 eta 2020 ekitaldietan. Egonkortze prozesuen barruan dauden plazak aldi baterako betetzeko tasak ehuneko 8tik behera egon behar du, arlo bakoitzean, aldiaren amaiera. TASEN BALIOZKOTASUNA BALDINTZA HAUEK BETETZEAREN MENDE GELDITZEN DA.
7. Hautaketa-prozesuak: berariazkoak, irekiak, lehia libre, berdintasun, meritua, gaitasun eta publikotasun printzipioak bermatuta.
8. Negoziatu ahal izango dira Estatuko Administrazio Orokorreko eta Autonomia Erkidegoetako eta Toki-Erakundeetako lurralde-eremu bakoitzean.
9. Prozesu horiek garatzeko, Administrazio desberdinen arteko koordinazioa posible egiten duten neurriak artikulatu daitezke.
10. MUGAK: Gastu-gehikuntzarik ez, giza-baliabideen gehikuntzarik ez.
11. Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioari jakinarazi behar zaio aldi baterako zenbat plaza dauden, bai eta ISPA sistemaren bidezko egonkortze-prozesuen emaitzak ere.

Arau hauek guztiek oinarritzko izaera dute eta Konstituzioaren 149.1.13a eta 156.1 artikuluen babespean ematen dira.

V.- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua l) atalean xedaturikoaren arabera, lan eskaintza publikoetan ezarri beharreko irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar direla, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz.

Zentzu horretan, 2018ko Lan Eskaintza Publikoa aztertu da 2018ko abenduaren 4an egindako bileran, aurrekarietan adierazitakoarekin bat, aurrekarietan aipatu diren



TOLOSAKO
UDALA

lanpostuak lan eskaintza publikoa argitaratu eta gero behin betiko izaeraz hornitzeko hautaketa prozesuak abian jartzea. Alabaina, lehen esan legez, pertsonal guztiaren hautaketa, izan funtzionarioak edota lan-itunpekoak, lan eskaintza publikoaren arabera egin behar dira, hautaketa dagokion deialdi publikoaren bidez abian jarri aurretik.

VI.- Bestalde, azpimarratu beharra dago Lan Eskaintza Publikoan aipatu diren lanpostu eta plaza guztiek aurrekontu-zuzkidura dutela udal aurrekontuetan.

Horri horrela, proposamena kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udaleko 2018ko ekitaldiko LAN ESKAINTZA PUBLIKOA onartzea, ondokoaren arabera:

1.- KARRERAKO FUNTZIONARIOAK: LANPOSTUAK BETETZEA

ESKALA: Administrazio Orokorra

AZPIESKALA: Administratiboa

MOTA: Administrariak

IZENAK: **Errolda eta Estatistikako administraria, UDATEko administrariak (2), eta Errentako administraria**

SAILKAPEN TALDEA: C

AZPITALDEA: C1

MAILA OSAGARRIA: 17

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 4

TXANDA: Mugatua

HAUTATZE-SISTEMA: Barne Lehiaketa Mugatua

2.- PLAZAK HORNITZEA (ENPLEGUA EGONKORTZEKO JARDUNBIDEA)

ESKALA: Administrazio orokorra

AZPIESKALA: Administratiboa

MOTA: Administraria

IZENAK: **Merkataritza, Azokak eta Turismoa, Kultura eta UDATEko informazioko eta tramitazioko agentea**

SAILKAPEN TALDEA: C

AZPITALDEA: C1

MAILA OSAGARRIA: 17

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 3

TXANDA: irekia



TOLOSAKO
UDALA

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

ESKALA: Administrazio orokorra

AZPIESKALA: Administratiboa

MOTA: Administraria

IZENAK: **Kontabilitate eta Erosketetako Administraria**

SAILKAPEN TALDEA: C

AZPITALDEA: C1

MAILA OSAGARRIA: 18

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

3.- PLAZAK HORNITZEA (LIBREA)

ESKALA: Administrazio berezia

AZPIESKALA: Teknikoa

MOTA: Erdi Mailako teknikaria

IZENA: **Gizarte Langilea**

SAILKAPEN TALDEA: A

AZPITALDEA: A2

MAILA OSAGARRIA: 19

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa.

ESKALA: Administrazio orokorra

AZPIESKALA: Teknikoa

MOTA: Goi Mailako teknikaria

IZENA: **Euskara eta Hezkuntzako burua**

SAILKAPEN TALDEA: A

AZPITALDEA: A1

MAILA OSAGARRIA: 25

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. TG, derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa



TOLOSAKO
UDALA

4.- FUNTZIONARIZAZIOA

ESKALA: Administrazio orokorra

AZPIESKALA: Administratiboa

MOTA: Administraria

IZENAK: **Administraria eta Artxiboko kudeatzailea (Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena)**

SAILKAPEN TALDEA: C

AZPITALDEA: C1

MAILA OSAGARRIA: 17

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: mugatua

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, funtzionarizazioa

ESKALA: Administrazio berezia

AZPIESKALA: Teknikoa

MOTA: Goi mailako teknikaria

IZENAK: **Arkitektoa**

SAILKAPEN TALDEA: A

AZPITALDEA: A1

MAILA OSAGARRIA: 26

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: mugatua

HAUTATZE-SISTEMA: Lehiaketa-oposizioa, funtzionarizazioa

BIGARRENA.- 2018 ekitaldiko Lan eskaintza publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Halaber, lan eskaintza publikoaren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, ze egun eta ze zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan argitaratu den adieraziz.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri ematea Kontuhartzaitetza Sailari eta Udaleko langileen ordezkari.



3. PROGRAMAKO BITARTEKO FUNTZIONARIOAREN IZENDAPENA LUZATZEKO AKORDIOA BERRESTEA.

2017ko azaroaren 20ko Gobernu Batzarrean, izapideen eskuliburuaren aplikazioa ezarri eta espedienteen kudeaketa elektronikoa bideratzeko programatu onartu zen, eta hori garatzeko urte beteko epea ezarri zen.

Era berean, programa hori gauzatu ahal izateko, Francisco Javier Araniguria Rodrigo jn. bitarteko funtzionario izendatu zen, 2017ko abenduaren 1etik 2018eko azaroaren 30era arte, zehaztutako programa burutu zezan.

2018ko uztailaren hogeita zazpiko Gobernu Batzarrean ordea, izapideen eskuliburu eginda eta espedienteen kudeaketa jadanik udalean txertatuta zegoela aintzat hartuta, aipatu programa beste behar batzuetara egokitu zen, hain zuzen ere, honakoetara:

- 9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legearen ezarpena.
Udaleko kontratazio espedienteen izapidetzea bateratzea, dena sail batean zentralizatuaz.
Espediente bakoitzaren pausoak definitu eta kudeaketa programan sartzea.
Eredugarriak izan daitezkeen espedienteak lantzea.

Programa 2018ko azaroaren 30era arte arte ezarri zen. Hala eta guztiz ere, amaitzeke dagoela kontutan hartuta, Giza Baliabide sailak hori luzatzeko proposamena egin du, zehazki, honako zereginak egiteko:

- 9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legearen ezarpenarekin jarraitzeko.
Kontratazio ereduak sortzeko.
Eredugarriak izan daitezkeen espedienteak lantzen jarraitzeko.

Lanpostuko balorazioaren arabera, urtean 44.486,42 euro gordinoko ordainsaria jasoko du.

	Hileko	Aparteko Ordainketa	URTEKO
Soldata	1.151,16	710,35	15.234,60
Lanpostu maila	730,28	730,28	10.223,92
Berariazko osagarria	1.359,14	1.359,14	19.027,90
GUZTIRA:	3.240,57	2.799,76	44.486,42



TOLOSAKO
UDALA

Honela, uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2018.urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen ditu. Bertan, aipatu legeko 20.artikuluko bigarren apartatuak dioenaren arabera, ezin izango da egin aldi baterako kontrataziorik, ezta bitarteko funtzionariarik izendatu ere, baldin eta ez bada salbuespenezko kasuren bat, premiazko eta atzeraezinezko beharren bati erantzuteko; gainera, mugatuko dira lehentasunezko izaera duten edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduetan eragina duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletara. Kasu honetan, Udal idazkariak behar hauek justifikatzeko txostena egin du.

Aurreko guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Berrestea 2018/2175 zenbakidun Alkatetza Dekretua, hau da, Francisco Javier Araniguria Rodrigo jn.-ri programako bitarteko funtzionario izendapena luzatzea, 2018ko abenduaren 1etik gehienez ere 2019eko urtarrilaren 31ra bitartean.

BIGARRENA.- Hurrengo Gobernu Batzarrean erabaki hau berrestea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea.

4. ONARTZEA TOLOSAKO IURRAMENDI PASEALEKUAN DAUDEN BI HAUR PARKEEN MANTENUA EGITEKO MATERIAL HORNIDURAREN KONTRATAZIO JARDUNBIDEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

1.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Udal Ingeniari Teknikoak eta Hirigintza Departamentuko buruak 2018ko azaroaren 28an egindako txostenaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zioten. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoaren plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen (SPKL



hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere IV. Kapituluaren (298. artikulutik aurrera), Hornidura kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, alokairua, egikaritzea, prezioaren ordainketa eta kontratua etetea beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Aipatutako txostenean, administrazio baldintza zehatzen agiria osatzeko oinarrizko datuen inguruan egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatu zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, bermealdia eta esleipen irizpideak.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan:

“Artículo 28. Necesidad e idoneidad del contrato y eficiencia en la contratación.

1. Las entidades del sector público no podrán celebrar otros contratos que aquellos que sean necesarios para el cumplimiento y realización de sus fines institucionales. A tal efecto, la naturaleza y extensión de las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, así como la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, cuando se adjudique por un procedimiento abierto, restringido o negociado sin publicidad, deben ser determinadas con precisión, dejando constancia de ello en la documentación preparatoria, antes de iniciar el procedimiento encaminado a su adjudicación.”.

2.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Espeditenteari hasiera emateko Alkatetzaren Probidentzia.
- Administrazio baldintza zehatzen agiria osatzeko oinarrizko datuen inguruko txostena, non baliabide propioak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Baldintza teknikoaren plegua.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria.

Halaber, espeditentea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek, administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 16. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten du: *“Artículo 16. Contrato de suministro. 1. Son contratos de suministro los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de productos o bienes muebles. 2. Sin perjuicio de lo dispuesto en la letra b) del apartado 3 de este artículo respecto de los*



TOLOSAKO
UDALA

contratos que tengan por objeto programas de ordenador, no tendrán la consideración de contrato de suministro los contratos relativos a propiedades incorpóreas o valores negociables. 3. En todo caso, se considerarán contratos de suministro los siguientes: a) Aquellos en los que el empresario se obligue a entregar una pluralidad de bienes de forma sucesiva y por precio unitario sin que la cuantía total se defina con exactitud al tiempo de celebrar el contrato, por estar subordinadas las entregas a las necesidades del adquirente. b) Los que tengan por objeto la adquisición y el arrendamiento de equipos y sistemas de telecomunicaciones o para el tratamiento de la información, sus dispositivos y programas, y la cesión del derecho de uso de estos últimos, en cualquiera de sus modalidades de puesta a disposición, a excepción de los contratos de adquisición de programas de ordenador desarrollados a medida, que se considerarán contratos de servicios. c) Los de fabricación, por los que la cosa o cosas que hayan de ser entregadas por el empresario deban ser elaboradas con arreglo a características peculiares fijadas previamente por la entidad contratante, aun cuando esta se obligue a aportar, total o parcialmente, los materiales precisos. d) Los que tengan por objeto la adquisición de energía primaria o energía transformada.”.

Bestalde, zerbitzu kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **50.787,28 eurokoa** dela. Kontratazio honetan ez da loteetan banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espedientean.

Hori horrela, nahiz eta hornidura kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19 artikuluan arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 21. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (221.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtso berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Bigarrena.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren I. tituluan IV. Kapituluan eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL.k bere 86, 87, eta 89. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre,*



por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.

3.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLak bere 116, 119 eta 120 artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: “gerora ezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espedienteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espedienteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “*hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...*”

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritik.

4.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Hornidura kontratua gauzatzeko gehienez **HILABETEKO EPEA** ezarri da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Oinarritzko lizitazio aurrekontua ondoko hau izango da: 61.452,61 euro, horietatik 50.787,28 euro printzipala eta 10.665,33 euro BEZari (%21) dagozkionak. Halaber, kontratu honen **balio zenbatetsia** 50.787,28 eurokoa da.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, **0700.601.01.01.153.20 2018** aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko direla.

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.



5.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLan jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide ireki sinplifikatua** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLaren 156, 157, 158 eta 159 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I Eranskinaren 10 eta 18 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLaren 145, 156, 157 eta 158 artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere.

Kasu honetan, SPKLak 145. artikuluan xedatutakoa betetzen da:

“1. La adjudicación de los contratos se realizará utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio. 2. La mejor relación calidad-precio se evaluará con arreglo a criterios económicos y cualitativos. Los criterios cualitativos que establezca el órgano de contratación para evaluar la mejor relación calidad-precio podrán incluir aspectos medioambientales o sociales, vinculados al objeto del contrato... 4. Los órganos de contratación velarán por que se establezcan criterios de adjudicación que permitan obtener obras, suministros y servicios de gran calidad que respondan lo mejor posible a sus necesidades; y, en especial, en los procedimientos de contratos de servicios que tengan por objeto prestaciones de carácter intelectual, como los servicios de ingeniería y arquitectura.... 5. Los criterios a que se refiere el apartado 1 que han de servir de base para la adjudicación del contrato se establecerán en los pliegos de cláusulas administrativas particulares o en el documento descriptivo, y deberá figurar en el anuncio que sirva de convocatoria de la licitación. Se considerará que un criterio de adjudicación está vinculado al objeto del contrato cuando se refiera o integre las prestaciones que deban realizarse en virtud de dicho contrato, en cualquiera de sus aspectos y en cualquier etapa de su ciclo de vida,...”

Azkenik, berme-epari dagokionez, urtebeteko epea ezarri da eta SPKLaren 111.5 artikulua azken idatz-zatian xedaturikoa betetzen bada, epe hau 6 hilabetekoa izango da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez baitu 1.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen.



TOLOSAKO
UDALA

6.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

Kontratazio-espeditarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPKLaren 122 eta 124 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

7.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoa jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena Alkate-Udalburuarena da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, udal honetako Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du Idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arazoengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLaren 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, Idazkaritza eta Kontuhartzailtza Departamentuek egindako aldeko txostenak ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako lurreamendi pasealekuan dauden bi haur parkeen mantenua egiteko materialen hornidura kontratuaren espeditatea onartzea.

BIGARRENA.- Oinarrizko lizitazio aurrekontua eta lizitazio prezio orokorra ondoko hau izango da: 61.452,61 euro, horietatik 50.787,28 euro printzipala eta 10.665,33 euro BEZari (%21) dagozkionak. Halaber, kontratu honen balio zenbatetsia 50.787,28 eurokoa da.

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen xede den hornidura gauzatzeko gehieneko epea **hilabetekoa** izango da, dagokion kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.



TOLOSAKO
UDALA

LAUGARRENA.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide ireki sinplifikatua) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako udaleko kontratugilearen profilean, lizitatzailerak beren proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzailtza Departamentuari jakinaraztea.

5. HAUREN HIRIA ZERBITZUAREN KONTRATAZIO JARDUNBIDEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

1.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Alkate-Udalburuak 2018ko irailaren 3an egindako probidentziaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzailtza txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituen (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), Zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna beste batzuen artean.

Hirugarrena.- 2018ko azaroaren 28an Gazteria Teknikariak egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen ditu; gainera baliabide propio nahikoak ez-izatea ere justifikatzen du eta horretan oinarrituta, lizitazioa egitearen beharra justifikatzen du.

Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan:

“Artículo 28. Necesidad e idoneidad del contrato y eficiencia en la contratación.



1. Las entidades del sector público no podrán celebrar otros contratos que aquellos que sean necesarios para el cumplimiento y realización de sus fines institucionales. A tal efecto, la naturaleza y extensión de las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, así como la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, cuando se adjudique por un procedimiento abierto, restringido o negociado sin publicidad, deben ser determinadas con precisión, dejando constancia de ello en la documentación preparatoria, antes de iniciar el procedimiento encaminado a su adjudicación.”.

2.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu behar da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Espeditenteari hasiera emateko Alkatetzaren Probidentzia.
- Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailaren buruak egindako kontratazio-proposamena.
- Baliabide propioak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Baldintza teknikoaren plegua.
- Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria.

Halaber, espeditentea osatu behar da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek, administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten du: *“Son contratos de servicios aquellos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o suministro, incluyendo aquellos en que el adjudicatario se obligue a ejecutar el servicio de forma sucesiva y por precio unitario. No podrán ser objeto de estos contratos los servicios que impliquen ejercicio de la autoridad inherente a los poderes públicos”.*

Bestalde, zerbitzu kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a) artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **75.776,40 eurokoa** dela. Kontratazio honetan ez da loteetan banaketarik aurreikusi, eta hori justifikatu da espeditentean.

Hori horrela, nahiz eta zerbitzu kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19 artikulua arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 22 artikulua



xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (221.000,00 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia ezin izango da tartekatu, aipatu Legearen 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua ez duelako gainditzen.

Bigarrena.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren I titularen IV Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLak bere 86, 87, eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *“La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.”*.

3.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLak bere 116, 119 eta 120 artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arazoengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arazoituta”*. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: *“hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...”*.

Kasu honetan, ez da Legearen 119 eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza



Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritz.

SPKLaren 117.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, kontratazio espedientea aurretiazko izapidetzeaz egingo da, esleipenarekin eta kontratuaren formalizazioarekin ere, nahiz eta egikaritzea 2019. urtean hasi. Honetarako, dagokion urteko aurrekontuetan dagokion kreditua atxikituko zaio.

4.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Zerbitzu kontratuaren **iraupena** 27 hilabetekoa izango da, 2019ko martxoaren 1ean hasi eta 2021eko maiatzaren 31ra arte; gainera kontratua beste 12 hilabetez luzatzeko aukera izango da, 2021eko ekainaren 1etik, 2022ko maiatzaren 31ra arte. Nahiz eta iraupena urte osoak hartu, kontratuaren egikaritzea, eskola-hilabeteen arabera egingo da, horregatik uztailaren 1etik irailaren 30era arte ez da kontratua egikarituko.

Oinarrizko lizitazio aurrekontua ondoko hau izango da: 91.689,30 euro, horietatik 75.776,40 euro printzipala eta 15.912,90 euro BEZari (%21) dagozkionak. **Lizitazio prezio orokorra** 28.212,00 euro horietatik 23.315,70 euro printzipala eta 4.896,30 euro BEZari (%21) dagozkionak (bi urte osoz). Halaber, kontratuaren **balio zenbatetsia** 75.776,40 eurokoa da.

Hauek dira kontratuaren epe osoaren balio zenbatetsiak eta ordaindu beharreko kuotak (BEZa barne):

urtea	epea	Balio zenbatetsia	Urteko kuota (BEZa barne)
2019	10 hilabete / 10 meses	19.430,00	23.510,20 €
2020	12 hilabete / 12 meses	23.315,70	28.212,00 €
2021	5 hilabete + 7 hilabete / 5 meses + 7 meses	23.315,70	28.212,00 €
2022	5 hilabete / 5 meses	9.715,00	11.755,10 €
<i>guztira</i>	27 hilabete + 12 hilabete / 27 meses + 12 meses	75.776,40 €	91.689,30 €

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, 0800.227.04.337.20 udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko direla.

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

5.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLan jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela



TOLOSAKO
UDALA

dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLaren 156, 157, 158 eta 159 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 20. klausulan eta bere I Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLaren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan, balio-judizioetan oinarritutako irizpideak ehuneko 45a suposatzen dute, beraz, SPKLak 159.1.b) artikuluan xedatutakoa ez da bete behar eta lege bereko 145. artikuluan xedatutakoak agintzen du.

Azkenik, berme-epari dagokionez, SPK Legearen 111.5, azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabeteetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 euroko kopurua gainditzen.

6.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPKLaren 122 eta 124 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

7.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoa jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena Alkate-Udalburuarena da. Hala ere, Tolosako udalaren kasuan, udal honetako Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontutan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du Idazkari honek.



Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLaren 190 eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, Idazkaritza eta Kontuhartzailtza Departamentuetako aldeko txostenak ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Haurren Kontseiluaren diseinua eta garapenaren zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea.

BIGARRENA.- Oinarrizko lizitazio aurrekontua ondoko hau izango da: 91.689,30 euro, horietatik 75.776,40 euro printzipala eta 15.912,90 euro BEZari (%21) dagozkionak. Lizitazio prezio orokorra 28.212,00 euro horietatik 23.315,70 euro printzipala eta 4.896,30 euro BEZari (%21) dagozkionak (bi urte osoz). Halaber, kontratuaren balio zenbatetsia 75.776,40 eurokoa da.

Hauek dira kontratuaren epe osoaren balio zenbatetsiak eta ordaindu beharreko kuotak (BEZa barne):

urtea	epea	Balio zenbatetsia	Urteko kuota (BEZa barne)
2019	10 hilabete / 10 meses	19.430,00	23.510,20 €
2020	12 hilabete / 12 meses	23.315,70	28.212,00 €
2021	5 hilabete + 7 hilabete / 5 meses + 7 meses	23.315,70	28.212,00 €
2022	5 hilabete / 5 meses	9.715,00	11.755,10 €
guztira	27 hilabete + 12 hilabete / 27 meses + 12 meses	75.776,40 €	91.689,30 €

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzeko epea 27 hilabetekoa izango da, 2019ko martxoaren 1ean hasi eta 2021eko maiatzaren 31ra arte; gainera kontratua beste 12 hilabetez luzatzeko aukera izango da, 2021eko ekainaren 1etik, 2022ko maiatzaren 31ra arte. Nahiz eta iraupena urte osoak hartu, kontratuaren egikaritzea, eskola-hilabeteen arabera egingo da, horregatik uztailaren 1etik irailaren 30 era arte ez da kontratua egikarituko.



TOLOSAKO
UDALA

LAUGARRENA.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako udaleko Kontratugilearen Profilean, lizitatzailerik beren proposamenak 20 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek Kontuhartzaitza Departamentuari jakinaraztea.

6. 67/2018 ETA 68/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **67/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **2.439,77€**.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **67/2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **68/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **48.229,51 €**.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.- 68/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA